

# Ustekabeak patioan





Argitaraldia: 1.a 2007ko irailean  
Ale-kopurua: 1.000 ale  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Industria, Merkataritza eta Turismo Salla  
Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Egilea: Ortzadar, S.L.  
Aurreinprimaketa: Argia Servicios Gráficos, S. L.  
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S. A.  
ISBN: 978-84-457-2607-5  
Lege-gordailua: VI-392/07



Jolas-ordua da eta eguzki da. Kontxi eta Katalin ezkutaketan ari dira jolasten, ikastetxeko patioan.


Katalin hamar arte kontatzen ari da, Kontxi ezkutatzeko leku baten bila dabilen bitartean. **1,2,3...** Kontxi batetik bestera dabil korrika. Patioaren alde batean zuhaixka batzuk ikusi ditu. Harantz doa korrika, ezkutatzera, Katalinek begiak zabaldu baino lehen. Korrika doala, platano-azal bat zapaldu, irrist egin eta lurrera erori da. A zer ipurdikoa!

Ezustearekin, Elena andereñoak emandako aholku bat etorri zajo gogora: “Ez bota zaborrik lurrera. Erabili zakarrontziak”.



a zakarrontzian egon balitz, ez zen eroriko.

“Min hartu al duzu?”, galdetu dio Katalinek, lagunaren




min-keinuak ikusita. Une horretan andereñoa azaldu da. “Ba alduzu minik, Kontxi?”. Baietz dio buruarekin. “Beso bat edo



bat hautsi zenezake, baina ezustekoa baino ez da izan”, dio Elenak. Ordurako, ikasle asko bildu dira Kontxiren inguruan.

“Platano-azalak du errua!” dio Kontxik, atsekabetuta.

Irakaslea aukeraz baliatu da, gainerakoei adierazteko zer gertatu den. “Entzun unetxo batez. Kontxi erori egin da, norbaitek ez dituelako  ra bota askariaren hondarrak. Orain, talde txikiak osatu eta lurrean aurkitzen duguna jasoko dugu”. Elenak plastikozko poltsak banatu ditu eta lanari ekin diote.


“Begira, norbaitek  -erdia bota du”, dio haur batek.

“Aluminio-paperezko bi pilota aurkitu ditut nik”, dio beste ikaskide batek. “Nik lata huts bat”, esan du Katalinek.

“Zaborra bere lekuan uzten ez badugu, patioa zikina egongo





da eta ez duzue hemen jolastu nahi izango”, adierazi du Elenak. “Horregatik, garrantzitsua da hondakinak jasotzea. Gainera, botatzen dugun zaborraren zati handi bat berriro erabil daiteke”.

Patioaren ertzetako batera hurbiltzean, Kontxik  txiki bat ikusi du, janari-hondarrei mokoka. Hegan egiten saiatzen da, baina ezin du. “Indarrik ez duela dirudi” pentsatu du. Kontxik laztan egin eta begiratu egiten dio, gainerakoak patioako zaborra jasotzen ari diren artean. Izena jarri dio: “Horitxo”.

Katalin, laguna makurtuta ikustean, harengana hurbildu da. “Ze polita!”, oihu egin du, txori txiki bat duela konturatzean. “Oso nekatuta dagoela ematen du. Elenari eramango diogu” proposatu du.

Elenak, txoriari begiratuta, esan du: “Oso ahul dago. Agian ordu




asko eman ditu hegan. Begiratu  ra ". Gaietik pasatzen ari den txorien multzo izugarri bati begira geratu dira biak. "Seguruenik Horitxo horiekin batera zihoan hegan", azaldu dio andereñoak.

"Nora doaz txori horiek guztiak?", galdetu du Kontxik.

"Bizitzeko leku berri baten bila doaz", erantzun dio Elenak.

"Eta zergatik joan behar dute beste nonbaitera?", galdetu du Katalinek, harrituta.

"Txoriak, bizitzeko eta kumeak zaintzeko, leku epelagoetara joaten dira, baina batzuetan, zuhaitzak moztu,  k galdu eta etxe berri bat bilatu behar izaten dute", azaldu die Elenak.


"Eta zergatik mozten dituzte zuhaitzak?", galdetu du Kontxik, jakin-minak jota.





“Zuhaitzen egurra erabiliz, maiz erabiltzen ditugun gauza asko egiten dira”, argitu du Elenak.

“Mahaiak, aulkiak,  ak ...” bota du Katalinek, azkar-azkar.

“Egia da. Gainera, gure koadernoetako eta liburu-etako egiteko ere egurra behar da”, erantsi du Elenak. 

“Eta zer egin dezakegu txoritxoak etxerik gabe gera ez daitezen?”, galdetu du Kontxik.

“Hasteko, ez dugu hainbeste paper erabili behar, txorien habiak dauden zuhaitzak ez mozteko”.

“Baina, nola lagunduko diogu orain Horitxori?”, galdetu du Katalinek.



“Janari pixka bat emango diogu, indartzeko eta hegan jarrai dezan”, erantzun du Elenak.

Katalin eta Kontxi korrika joan dira ikastetxeko sukaldera, esnetan bustitako  apur baten bila. Berehala itzuli dira. Elena zain dago, txoria zaintzen.

Kontxik platera lurrean utzi du. Horitxo lotsaz hurbildu da, baina gero, geratu gabe egon da jaten. Kontxi eta Katalin oso gustura daude Horitxori begira.

Minutu gutxi batzuk geroago, txoritxoa alaiago dagoela ematen du eta indar handiagoz egiten du txio-txio!. Hegan hasi eta berriro ere patioaren gainetik pasatzen ari den txorien multzoarekin elkartu da. Kontxik eta Katalinek agur esan diote, zerura begira. Oso pozik daude Horitxori lagundu izanagatik.







Tirrin-tirrin!... Txirrinak jo du, jolas-ordua bukatu da eta Katalin eta Kontxi gelara itzuli dira.

Gelan, Elenak arkatzak eta margoak atera eta marrazki bana egiteko eskatu die ikasleei.



“Baina, non marraztuko dugu?”, galdetu du Kontxik. “Ez dugu paper asko erabili behar, bestela txoritxoak  rik gabe geratuko dira-eta”.

“Hala da”, erantzun du Elenak. “Bilatu lehendik erabilitako orri bana, behar bezala aprobeixatu orri berri bat ez erabiltzeko”.



Kontxiren atzean esertzen den ume batek orri bat aurkitu du, alde batean zenbaki batzuk dituen eta bestean ezer ez. Marrazkiak uzteko kaxari begiratu dio Katalinek, eta Elenari


baimena eskatu dio fitxa baten atzeko aldean erabiltzeko. Kontxik, berriz, oraindik erabiltzeko moduan dagoen orri bat aurkitu du paperontzian.

Kontxik eta Katalinek argi dute zer marraztu behar duten:

Horitxo, pozik bere habian, familiarekin batera,  handi batean.

Kontxik marrazkia amaitu du eta irribarrez begiratzeko dio. Bat-batean, txoritxoak keinu egin diola iruditu zaió. Kontxik, harrিতා,

 ak igurtzi eta berriro begiratu dio marrazkiari. Bere irudimena izan ote da?





**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO